

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 53/2019, Foru Dekretua, azaroaren 26koa. Onestea Arabako Lurralde Historikoan bizi diren familia unitateentzako jaiotzeengatikozuzeneko dirulaguntzen oinarri arautzaileak onesten dituen foru dekretu proiektua

2019ko urtarrilaren 16ko osoko bilkuran, Arabako Batzar Nagusiek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zegari buruzko 33/2013 Foru Araua aldatzen duen 1/2019 Foru Araua onetsi zuten, eta pertsona fisikoen gaineko zergarako hainbat zerga neurri proposatu zituzten, besteak beste, jaiotzen aldekoak.

Horrela, familien zerga sistema hobetzeko eta jaiotzak sustatzeko, zuzeneko dirulaguntza lerro bat ezarri zen, zeinaren bidez 1.000,00 euro emango baitzaizkie familia unitateei jaiotzak direla eta, baldin eta Arabako Lurralde Historikoan urtebete baino gehiago bizitzen badaramate eta urtean 40.000,00 euro baino gutxiagoko diru sarrera gordinak badauzkate. Arabako Lurralde Historikoan urtebete baino gehiago bizitzen daramaten eta 40.000,00 euro baino gehiagoko eta 75.000,00 euro baino gutxiagoko diru sarrera gordinak dituzten familiek, aldiz, 500,00 euro jasoko dituzte jaiotzak direla eta. Urtean 75.000,00 euro baino gehiagoko diru sarrera gordinak dituzten familiek, berriz, 250,00 jasoko dituzte jaiotzak direla eta, eta dirulaguntza hori seme-alabak izateagatik aplikatzen diren gainerako kenkariekin bateragarria izango da.

Arau agindua betetzeko, Gizarte Zerbitzuen Saila zenaren (gaur egun, Gizarte Politiken Saila) martxoaren 5eko 52/2019 Foru Aginduaren bidez, Arabako Lurralde Historikoan bizi diren familia unitateei jaiotzak direla eta zuzeneko dirulaguntza emateko oinarri arautzaileak onesten dituen foru dekretuaren proiektua egiteko prozedura hasi zen.

Geroago, behin arauaren testuaren proposamena idatzita, diputatu nagusiaren azaroaren 6ko 446/2019 Foru Dekretuaren bidez, Arabako Lurralde Historikoan bizi diren familia unitateei jaiotzak direla eta zuzeneko dirulaguntza emateko oinarri arautzaileak onesten dituen foru dekretuaren proiektuaren aurretiko onespenez izapidea bete zen.

Honako hau da foru dekretuaren proiektuaren xedea: jaiotza tasa sustatzeko dirulaguntza zuzenak emateko oinarri arautzaileak taxutzea, jaiotzak dauzkaten familia unitateen urteko diru sarrerak aintzat hartuta.

Informazio publikoa Arabako Foru Aldundiaren webgunean argitaratzeko izapidea beteta, herritarrek ez dutenez inolako ekarpenik egin, Arabako Lurralde Historikoan bizi diren familia unitateei jaiotzak direla eta zuzeneko dirulaguntza emateko oinarri arautzaileak izapidetu beharra dago.

Horregatik, Gizarte Politiken Saileko diputatuak eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea Arabako Lurralde Historikoan bizi diren familia unitateei jaiotzak direla eta zuzeneko dirulaguntza emateko oinarri arautzaileak, zeinak dekretu honen I. eranskinean baitaude.

Bigarrena. Foru Dekretu honek onetsitako oinarri arautzaileak ALHAOn argitaratuko dira eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango dute indarra.

Gasteiz, 2019ko azaroaren 26a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Gizarte Politiken diputatua

EMILIO SOLA BALLOJERA

Ogasun zuzendaria

TERESA VIGURI MARTÍNEZ

Gizarte Zerbitzuen zuzendaria

ANA BELÉN OTERO MIGUÉLEZ

I. ERANSKINA

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTUEN SAILAK ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAN JAIOTZA TASA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK LEHIA ASKEKO ARAUBIDEAN ESLEITZEKO OINARRI ARAUTZAILE OROKORRAK

Arabako Batzar Nagusiek, 2019ko urtarrilaren 16ko bileran, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Araua aldatzen duen urtarrilaren 16ko 1/2019 Foru Araua onetsi zuten, seme-alaben jaiotza dela eta zuzeneko dirulaguntzen lerroa ezartzeko.

1. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua

Foru dekretu honen bidez, Arabako Foru Aldundiaren Ogasun, Finantza eta Aurrekontuen Sailak Arabako Lurralde Historikoan jaiotza tasa sustatzeari begira lehia askeko araubidean esleitzen dituen dirulaguntzen oinarri arautzaile orokorrak ezartzen dira, Arabako lurralde historikoan bizi diren familia unitateetako zergadunei seme-alabak edukitzeagatik esleituko zaizkien laguntza zuzenei dagokienez.

2. artikulua. Printzipio orokorrak

Ematen diren dirulaguntzak honako printzipio hauen arabera kudeatuko dira:

- Publikotasuna, gardentasuna, lehia, objektibitatea, berdintasuna eta bereizkeriarik eza.
- Eraginkortasuna ezarritako helburuak betetzeko.
- Baliabideak esleitzeko eta erabiltzeko efizientzia.

3. artikulua. Kontzeptuak

1. Familia unitate batean 2019ko urtarrilaren 1etik deialdian zehazten den egunera bitartean jaiotzen diren seme-alabengatik eman ahalko da dirulaguntza.

2. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 98. artikuluan zehazten den familia unitatea hartuko da aintzat.

Familia unitateko kideak zehazteko datari dagokionez, oinarri hauen 5.3. artikuluan ezarritakoari helduko zaio.

3. Urteko diru sarrera gordintzat hartuko dira familia unitateko kideek jasotzen dituzten errentak. Ondorio horietarako, azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 6. artikuluan zehazten den errenta kontzeptua hartuko da kontuan.

Diru sarrera gordinen artean zenbatuko dira pertsona fisikoen errentaren gaineko zergatik salbuetsita dauden errentak.

Urteko diru sarrera gordinak zehazteko, sortutako azken zerga ekitaldia hartuko da aintzat.

4. artikulua. Deialdia

Oinarri hauek onartu ondoren onetsiko da ekitaldi bakoitzari dagokion deialdia.

Oinarri hauetan xedatzen ez den guztian, deialdiak Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauari helduko dio.

5. artikulua. Onuradunen betebeharrak

1. Familia unitateko gurasoetako edozein izan ahalko da laguntzen onuraduna, deialdian dirulaguntza eskatzearen inguruan zehazten diren baldintzetan.

2. Familia unitateak benetan bizi beharko du Arabako Lurralde Historikoan, eta bertako edozein udalerritan errolatuta egon beharko du, laguntza honen xede den jaiotza gertatu baino urtebete lehenagotik gutxienez, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 2. eta 3. artikuluetan ezartzen dena bazter utzi gabe.

3. Laguntza emateko, jaiotzaren eguneko familia eraketa hartuko da aintzat, bat etorritz artikuluko honen 1. apartatuan ezarritakoarekin.

4. Onuradunak ezingo dira egon Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauan eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.1.c) artikuluan onuradun izateko jasotzen diren debekuetan sartuta.

5. Onuradunak egunean eduki beharko ditu zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

6. artikulua. Laguntzak esleitzeko araubidea

Oinarri hauetan arautzen diren laguntzak lehia askeko araubidean esleituko dira, eta eskaerak jaso ahala banatuko dira funtsak; betiere, oinarri hauetan ezartzen diren betekizunak betetzen badira, eta deialdian onesten den aurrekontu horniduraren mugarekin.

7. artikulua. Dirulaguntzen guztizko kopurua eta banakako zenbatekoa

1. Deialdiak finkatuko du dirulaguntzei zein zenbateko bideratuko zaien, zein aurrekontu partidari helduko zaion eta, hala badagokio, zenbateko gehigarria zein izango den.

2. Onuradun bakoitzari seme-alaben jaiotza dela eta esleitu ahalko zaion dirulaguntzaren zenbatekoa honako hau da:

- Familia unitateak urtean 40.000,00 eurotik beherako diru sarrera gordinak badauzka, laguntza 1.000,00 eurokoa izango da jaiotza bakoitzeko.

- Familia unitateak urtean 40.000,00 euroko edo hortik gorako eta 75.000,00 euroko edo hortik beherako diru sarrera gordinak badauzka, laguntza 500,00 eurokoa izango da jaiotza bakoitzeko.

- Familia unitateak urtean 75.000,00 eurotik gorako diru sarrera gordinak badauzka, laguntza 250,00 eurokoa izango da jaiotza bakoitzeko.

8. artikulua. Prozedura bideratzeko eta ebazteko organo eskuduna eta ebazpena jakinarazteko epea

1. Deialdian ezarriko dira prozedura bideratzeko eta ebazteko organo eskudunak.

2. Organo izapidetzailleak, espedientea ikusita, ebazpen proposamena egingo du, behar bezala arrazoitua.

3. Organo izapidetzaileak proposatuta, ebazpena emateko eskumena duen organoak deialdian xedatzen den epearen barruan emango du dagokion ebazpena. Ebazpen horretan, dirulaguntza esleitzen zaien eskatzaileen zerrenda eta dirulaguntzaren zenbatekoa jasotzeaz gain, berariaz ezetsiko dira gainerako eskaerak, eta ezesteko arrazoia jaso beharko dira.

4. Dirulaguntza esleitzeko edo ezesteko ebazpena eskatzaileei banaka jakinaraziko zaie, Administrazio Publikoen administrazio prozedura erkidean aurreikusten denarekin bat.

5. Laguntza esleitzeko edo ezesteko ebazpenaren kontra indarreko legediaren arabera errekurtsoak jarri ahalko dira.

9. artikulua. Eskabideak aurkezteko modua eta epea

Eskabideak deialdian zehazten diren ereduarekin eta epearekin bat eginez aurkeztuko dira.

10. artikulua. Dirulaguntza ordaintzea

1. Dirulaguntza ordainketa bakarrean ordainduko da, deialdian bestelako ordainketa moduren bat ezarri ezean.

2. Onuradunak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez badauzka, dirulaguntza ez da ordainduko.

11. artikulua. Dirulaguntzen aldiberekotasuna eta bateragarritasuna

Laguntza hauek bateragarriak dira edozein administrazio edota erakunde publiko zein pribatuk esleitutako dirulaguntzekin.

12. artikulua. Dirulaguntza itzultzea

Esleitutako dirulaguntzak itzuli egin beharko dira Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren II. tituluak ezarritako kasuetan.

Onetsitako dirulaguntzarekin jasotako kopuruen itzulketa zuzenbide publikoko diru sarre-ratzat hartuko da, eta Ekonomiaren eta Aurrekontuen Araubideari buruzko abenduaren 18ko 53/92 Foru Arauan aurreikusten denaren arabera kobratuko da.

13. artikulua. Egiaztapena

Organo izapidetzaileak deialdiak garatzeko egokitzat jotzen dituen jarduerak egiteko ahala dauka, baita onuradunek emandako datuak egiaztatzea eskatzekoa eta datuon egiazkotasuna egiaztatzekoa ere, oinarri hauetan arautzen dena betetzeko. Ondorioz, onuradunek laguntza hauekin zerikusia daukaten datu eta dokumentu guztiak eman beharko dizkiote organo izapidetzaileari. Era berean, Arabako Foru Aldundiak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak edo bestelako erakunde eskudunek eska dezaketen informazio guztia eman beharko dute.

14. artikulua. Aplikatu beharreko arautegia

Oinarri hauetan ezartzen ez den guztian, honako hauetan xedatzen denari helduko zaio: Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko Aurrekontuen Araubide Ekonomikoari buruzko abenduaren 18ko 53/1992 Foru Araua eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legea.